premio mutualia saria
VII edición edizioa

Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea
Sociedad Informática del Gobierno Vasco

Proiektu zbk.: 2016/8
Enpresa: **EJIE**

# Sexu jazarpenerako protokoloa

**Helburua eta aurkezpena:** pjazarpen kasuak prebenitu eta tratatu, eta langileek lanean indarkeriarik ez jasateko duten eskubidea bermatu. Jarduteko prozedura bat finkatu. Jarduteko fase guztiak artikulatu. Jazarpen moral eta sexualeko portaerak lan-arrisku psikosozial moduan artatuko dituztela bermatu. 2008. urtean lehenengo Berdintasun Plana onetsi eta gero jarri zen abian; foro guztien ekarpenak → Eusko Jaurlaritzako Berdintasuneko Unitate Teknikoaren aholkuak eta gomendioak; Emakunde; Funtzio Publikoa; Gizakia Fundazioa; Osatek. Sexu-jazarpena eta jazarpen morala → prozedura bakarrean bateratu zituen. 2009an → hobekuntza-taldeak administrazioaren, hango erakundeen eta enpresa pribatuen protokoloak bildu eta aztertu zituen. Hobekuntza-taldearekin 12 bilera egin ondoren, protokoloaren 6. bertsioa lantzera iritsi ziren → Enpresa batzordea → Zuzendaritzan entregatu → 2011ko martxoaren 22an protokoloa behin betiko onetsi. Protokoloa Intraneten argitaratu zuten 2011ko martxoan, eta ondoren Emakundera bidali han erregistratzeko. Emakundek egin zuen deialdia 2014ko maiatzean berdintasun-arloan egindako jarduerak IHOBEn aurkezteko.



**Egindako hobekuntzak:** Akziokako sozietateko profesional espezializatuen bitartekaritza figura Borondatezkoa. Lan-arrisku psikosozial bezala baloratu. Babesteko neurriak biktimentzat. Isilpea, konfidentzialtasuna, intimitaterako eskubidea babestu. Prebentzio Zerbitzuko langile espezializatuen esku-hartzea prozesu osoan zehar. Laneko Segurtasun eta Osasuneko Batzordeak (LSOB) proposatutako neurri zuzentzaileen eraginkortasuna kontrolatu. Prozesuko jarduera faseetan tasatutako epeak → gatazka azkar eta era eraginkorrean konpondu. Baimen informatuaren inprimakia (Giza Baliabideetako zuzendaritza) → biktimak prozesua ezagutzea → prozesua hasi ala ez. Bitartekaritza, adiskidetzea eta ondorio negatiboak ikertzeko prozesua ireki dadin eskatzeko inprimakia. Baldin eta jazarpeneko portaerarik bada, zigor-espediente bat irekitzea eskatu ahal izango da. Baldin eta nahita iruzurrezko salaketarik egiten bada, zigor bat jasango da.

**Bereizgarriak:** jazarpen moraleko kasuak zabaldu. Jarduera esparrua zabaldu: Norbere lantaldea, enpresa hornitzaileak eta haien bezero nagusia, Eusko Jaurlaritza. Definizio argia eta zehatza, abian jartzea eragiten duten jokabideak zein diren eta zein ez adierazteko adibideekin. Jazarpen susmoa tratatzea → arazoari era informalean ekitea → Horrekin geldituko ez balira, Protokoloa. Jazarpen kasuei aurrea hartzeko jarduera-motak eta finkatu diren neurriak eta praktika egokiak: hedapena eta prestakuntza Jokabide Kodean, Lan Giroko eta Arrisku Psikosozialetako inkestak, jokabide horiek prebenitzeko prestakuntza ekintzen inguruko prestakuntza planak, OHSAS 18001ean egiaztatutako prebentzio-sistema, genero-berdintasuneko planak eta langile sartu berrien Harrera Planean protokoloa txertatu.

**Aplikagarritasuna eta eskuragarritasuna beste enpresa batzuentzat:** **SharePoint** → AEko enpresa publiko guztien arteko sarea → Berdintasun arloko gure dokumentuak eskuratzeko aukera, eta jazarpen-protokoloa horietako bat da. Koordinatu → koordinatzeko tresna → Ikerketa: erantzun zuten 103 enpresen artean, informatika-arloko 32 enpresak eta mantentze-lanetako 10 enpresak jazarpen-protokoloa zutela adierazi zuten. Beste edozein enpresa eskuragarri.